




AKUADEUS

MERKATUEN SEGMENTAZIOA

ZEINTZUK DIRA GURE BEZEROAK?

- Komunitateak: Uraren faktura murriztu eta ingurumen jasangarria sustatzeko prest dauden bizilagunak.
- Ikastetxeak eta ospitaleak: Ur-kontsumo handiko eta kostuak aurrezteko erakundeak.
- Eraikinak: Ur-kontsumo handiko instalazioak, gastuak murriztu eta jasangarritasuna bilatzen dituztenak.



HAIEN EZAUGARRIAK:

KOMUNITATEAK:

Bizilagunek uraren faktura murriztu eta ingurumen jasangarria sustatu nahi dute. Diru-baliabideak partekatzeko prest daude, zerbitzuaren instalazioa eta mantentzea komunitate osoak ordaintzen baitu.

IKASTETXEAK ETA OSPITALEAK:

Eguneroko ur-kontsumo handia dute eta kostuak murriztu nahi dituzte. Ura modu jasangarri batean kudeatzeko konpromisoa duten erakundeak dira. Uren kudeaketa errazteko sistemak behar dituzte, administrazio-lana murriztuz.

BESTE ERAIKIN PUBLIKO ETA PRIBATUAK:

Ur-kontsumo handia duten instalazioak, hala nola aireportuak, antzokiak edo museo handiak. Gastuak murriztu eta ingurumenarekiko konpromisoa mantentzen duten erakundeak.

BEZERO-SEGMENTUAK:

MERKATU SEGMENTATUA:

Gure bezeroak segmentu desberdinetan banatuta daude (komunitateak, hezkuntza-sektorea eta osasun-sektorea). Horietako bakoitzaren behar zehatzak kontuan hartzen ditugu zerbitzu pertsonalizatua eskainiz.

NITXOZ OSATUTAKO MERKATUA:

Akuadeus-en proposamena euritako ura birziklatzeko sistemetan espezializatua denez, sektore jakin batzuetan zentratu gara (komunitateak, ospitaleak, etab.), beharrak hobeto asetzeko.

